

SARRERA

Prestakuntza hau Artez Euskara Zerbitzuak, Kirolean enpresarekin lankidetzan, diseinatu eta garatu du, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarentzat.

Aurkezpena

Kirolean hizkuntzaren garrantziaz kontzientziatuta, euskara sustatzeko estrategia eta gakoak eskaintzen dituen modulua da hau.

[Euskara, bihotzetik ezpainetara](#)

Helburuak

- Kirol entrenatzaileek kontzientzia hartzea hizkuntzaren erabileran beraiek duten eraginaz
- Entrenamenduetan hizkuntza kudeatzeko estrategiak ezagutzea
- Hizkuntza estrategiak aplikatzen ikastea
- Jarrera eraikitzailea lantzea eta hizkuntza lidergoa sustatzea

Egitura eta metodologia

Ikastaroa hau online modalitatean gauzatuko dugu, modu asinkronikoan, hizkuntzak kirolean duen garrantziaren gainean hausnartu eta erabilera sustatzeko estrategiak lantzeko.

Bakarkako lanketa 5 unitatetan egituratuta dago, eta unitate bakoitzean hausnarketarako planteamenduak, eduki teorikoak eta jarduera praktikoak dituzu.

Moduluari itxiera ebaluazio baten bitartez emango diogu, ikusitako edukia errepasatzeko baliagarri izango dena.

Edukiak

Sarrera

1. Hizkuntza kontzientzia
2. Kirola eta hizkuntza elementu integratzaile gisa
3. Entrenatzailearen rola (liderraren rola)
4. Kirola eta hizkuntzaren joko zelaia(k)
5. Komunikazioaren garrantzia kirolean
6. Taldekako saioak
7. Ebaluazioa